



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko abenduaren 1a

106. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, toki kontratazioari dagokionez. Toki Administrazioiko Batzordeak onetsitako irizpena ([3. or.](#)).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena ([10. or.](#)).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diabetesa duten pertsonen identifikazioa, txapa edo eskumuturreko baten bitartez, erraztu dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du ([11. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bulimia edo nerbio-anorexia duten gaixoen-tzat berariazko plan bat abian jar dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du ([12. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte politiken babesaren duten kolektiboentzako hobari-sistemak edo beherapenak itundu ditzan bidaiarien garraiorako linea erregularren emakida duten enpresekin. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du ([13. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan osasun sareko ospitaleetan banakako gelak jartzeko programazioa abian jar dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du ([14. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako lan autonomia sustatzeko plana egin dezan, langile autonomoen kolektiboarekin lanean ari diren elkarrekin lankidetzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du ([15. or.](#)).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana duten emakumeak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan prestatzeko programak egin ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du ([16. or.](#)).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan Valtierra N-113 errepidetik AP-15 autobiderako sarbidea zabaldu eta hobetzeko eta bi norabideko lotune bihurtzeko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, abenduaren 1ean ospatzen den hiesaren kontrako nazioarteko eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, psikiatriako krisialdietan eta larrialdietan laguntza emateko talde tekniko bat abian jartzeari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egin (19. or.).
- Galdera, langileek lana eta familia bateragarri egite aldera Nafarroako Gobernuak garatutako programei buruzkoa, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egin (20. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat alditan eta noiz eskatu dion Nafarroako Gobernuak Espainiakoari Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa kudeatzeko eskumenak bereganatzea, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egin (20. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak iritzia aldatu eta Zizur Nagusian beste ikastetxe publiko bat eraiki beharrean dagoena handitzeko arrazoiei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin (21. or.).
- Galdera, Bigarren Zabalguneko osasun etxearen aurrekontu eta azken kostuari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (21. or.).
- Galdera, Larrialdietarako Zerbitzu Berezia Bigarren Zabalguneko osasun etxean jarri ez izanari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Cascanten ikastetxeak eraikitze edo handitzeko duen aurreikuspenei eta egungo egoerari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egin (23. or.).
- Galdera, zenbait ikastetxe eraiki edo handitzean izandako atzerapenei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egin (23. or.).
- Galdera, Tafallan Nasuinsak sustatutako La Nava industrialdeko egoerari buruzkoa, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egin (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, toki kontratazioari dagokionez.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Toki Administrazioiko Batzordeak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea toki kontratazioari dagokionez aldatzeko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2006ko urriaren 6ko 82. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpenari buruz, Osoko Bilkuran zuzenketa hauek defendatu ahalko dira:

– 2, 10, 12, 14, 16, 19, 22 eta 24. zenbakiko zuzenketak, Aralar parlamentu-taldeak aurkeztuak.

– 4, 5, 6, 7, 13, 15 eta 20. zenbakiko zuzenketak, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztuak.

– 1, 3, 8 eta 21. zenbakiko zuzenketak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztuak.

Zuzenketak 2006ko azaroaren 15eko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2006ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

IRIZPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea toki kontratazioari dagokionez aldatzeko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

1.

Foru legearen justifikazioa, eskumena eta legegintzako aurrekariak

Nafarroan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea onetsi zen arte, toki kontratazioari buruzko arauak Nafarroako udal administrazioari buruzko 1928ko Erregelamenduan jasotzen ziren. Aipatu foru legeak indarra hartu zuenetik, kontratazio publikoa arautzen duen foru araudira pasatu zen arau horien zati bat, orokorra hain zuzen ere, foru legeak Foru Komunitateko administrazioaren kontratazioaren araubidera igortzen baitzuen. Nafarroako toki entitateetan kontratazioak egiteko berezitasunak, berriz, Toki araubideari buruzko foru legerian gelditu ziren.

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea indarrean sartu arte, toki kontratazioaren araubidea Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legean zegoen ezarrita, bai eta Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legearen seigarren tituluan ere. Orain, aipatu foru legea osatu da toki eremuari begira, foru legeak berak emandako aginduarekin bat, eta kasuan kasuko berezitasunak ezarri.

Eremu horretarako legegintza eskumena erabiltzen da, toki administrazioari dagokionez, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 46. artikuluan xedatutakoaren babesean eta, kontratuen arloari dagokionez, berriz, 49.1.d) arti-

kuluan xedatutakoaren babesean, errespetatuz betiere Estatuko oinarriko legediaren funtsezko printzipioak eta kontratazio publikoari buruzko erkidegoaren printzipioak eta arauak.

Hain zuzen ere, Kontratu publikoei buruzko Foru Legeak orain arte zuzentarauei loturik zeuden kontratu publikoak esleitzeko prozeduren koordinazioari buruzko zuzentarau berriaren transposizioa egin du, eta halatan, obra, zerbitzu eta hornidura kontratuei buruzko araudia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko martxoaren 31ko 2004/18/EE Zuzentarauan bategin da.

Era berean, Kontratu publikoei buruzko Foru Legean Kontratazio Publikorako Batzordeari kontratazio publikoaren arloan kautelazko neurriak aldeztetik eskatzeko araubidea eta batzorde horretan erreklamazioa aurkeztekoa jaso dira, hain zuzen ere Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2003ko maiatzaren 15eko epaitik heldu diren terminoetan, 1989ko abenduaren 21eko 89/665/CE Zuzentarauaren transposizioa egite aldera –zuzentarauei horniduren eta obren kontratu publikoak esleitzeari arloan errekursoak aurkezteko prozedurak aplikatzeari buruzkoa da, eta ondotik zerbitzuen kontratu publikoak gehitu behar izan ziren–. Hirugarren xedapen iragankorrean, toki entitateei ahalmena ematen zaie, foru lege hau indarrean sartu arte, haien lizitazioak aipatu erreklamazioaren xede izan daitezzen, baldin eta administrazio klausulen orrian aukera hori jasoz bada.

2.

Foru legearen helburuak eta edukia

Foru lege honek hurrengo helburu nagusiak ditu: batetik, toki kontratazioaren eremuan jada agertzen diren berezitasunak Nafarroako administrazio publiko guztietako eta haiei lotutako entitateetako toki kontratazioaren araubide orokor berrira egokitzea, zeina egokiturik baitago kontratazio publikoari buruzko zuzentarau berrira; bestetik, Nafarroako toki entitateen eta horiei lotutako entitateen ezaugarriei erreparatuta beharrezkoak diren berezitasunak arautzea, foru eta erkidegoa esparru berrian entitate kontratugileak diren aldetik, eta azkenik, arau-esparru berriak eskaintzen dituen zenbait tresna garatzea, bai tokiko kontrataziorako oro har, bai zur eta egurretako aprobetxamenduen eremuko ondare-kontrataziorako.

Lehenik eta behin, Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legean, toki entitateen ondasunei buruzko tituluko herri ondasunei buruzko kapituluko bigarren ataleko laugarren azpiatala aldatzen da, zuraren salmenta modernizatu eta arintzea helburu.

Zerbitzu publikoen zuzeneko kudeaketa-modu- en araubidean aintzat hartzen da zein den toki entitateen arteko sozietateen errealitatea, sozietate horietako zenbaitetatik heldu den kapital soilik publikoz osatuta baitaude.

Nafarroako toki administrazioari buruzko Foru Legeak seigarren tituluan dituen berezitasunen eremuan, askotariko forma juridikoetatik heldu diren alderdiak arautzeari ekin zaio, hala antolatzen baitira, kontratazio publikoaren subjektu aktiboak diren aldetik, toki entitateak. Halaber, aurreikuspenak garatu dira, bai erkidegoarenak, bai foru komunitatearenak, kontratazio publikoa baliatzeko gizarte-helburuak lor daitezzen, baldin eta aldi berean entitate kontratugilearentzat abantailatsuak badira.

Aukera berriak garatu dira, hala nola 2.000 biztanle baino gutxiagoko entitateetan bateraezintasun-araubide berriarekin kontratatzea edo erosketazentralen bidez lizitazio bateratuak egitea.

Arau eta printzipio orokorrak egokitu dira –hala nola eskumenari, Kontratazio Mahaiari, bermeei, formalizazioari, obrak hartzeari edo publizitateari buruzkoak– toki entitateen berezitasunetara, administrazioak diren aldetik.

Azkenik, kontratazio publikoaren arloko errekursoei buruzko zuzentarauaren transposizioa egin da eta kontuan hartu dira oraingoan ere Nafarroako toki entitateen berezko egitura juridikoa eta antolamendu-egitura.

1. artikulua. Zur eta egurretako aprobetxamenduak.

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko laugarren tituluko II. kapituluko bigarren ataleko laugarren azpiatalari testu berria eman zaio, ondokoa hain zuzen ere:

“Laugarren azpiatala

Zur eta egurretako aprobetxamenduak

163. artikulua.

Herri-mendietako aprobetxamenduak oihanen arloan foru araudiak ezarritako baldintzen eta baimenen arabera egiten dira. Administrazioen arteko lankidetzaren eremuan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan oihanen arloko eskumena duen departamentuak, toki entitateak eskatuta, aprobetxamenduaren balorazio ekonomikoari buruzko txostena emanen du. Balorazioa orientabide modura egiten da eta ez da loteslea izanen.

164. artikulua. Toki entitateek ordenantza bidez finkatuko dituzte etxeetako egurretako nahiz mate-

rialetako auzo-aprobetxamenduen zenbatekoa, epeak eta gainerako baldintzak, eta ez da inolaz ere baimenduko horien salmenta.

165. artikulua. Toki entitateek, Foru Komunitateko administrazioak baimendu ondoren, oihan loteen aprobetxamenduak eman ahalko dituzte, tokian tokiko usadio eta ohituren arabera. 142. artikuluan xedatutako baldintza orokorrez gain, tokiko ordenantzek hurrengo betekizunak ezarriko dituzte:

a) Onuradunak izan daitezke honako bizilagunak: famili unitatearen kide bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 30etik behera jasotzen dutenak edo famili unitatearen dirusarrerara guztiak aipatu soldata gehi erdiaren azpitik dutenak.

Famili unitatean kideren batek ezintasun fisikoa edo mentala izanez gero, honako dirusarrera zenbatuko da ezintasuna duen kide bakoitzeko: lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 60.

b) Oinarrizko lotearen bolumena etxeko bost metro kubiko izanen da.

Onuradunei eman beharreko loteak oinarrizko loteari hurrengo koefizienteak aplikatuz lortuko dira:

Hiru kide bitarteko famili unitateak, 1 koefizientea.

Lau kidetik seira bitarteko famili unitateak, 1,5 koefizientea.

Zazpi kidetik bederatzira bitarteko famili unitateak, 2 koefizientea.

Bederatzi kidetik gorako famili unitateak, 2,5 koefizientea.

Lote guztiek ez dute inolaz ere gaindituko mendiarren urteko errentaren edo ahalmenaren 100eko 25.

c) Toki entitateek, beren herri ondasunen ezaugarriak eta udalerriko baldintza sozialak kontuan hartuta, proportzionalki eta justifikatuta jaitsi ahal izanen dute a) eta b) letretan ezarritakoa, baina ez igo.

d) Oihaneko produktuen lote horiek ezin izanen dira bakarka ustiatu, toki entitateek batera ustiatu beharko baitituzte. Besterendu eginen dituzte eta onuradunei salmentaren zenbatekoa emanen diete, markatzearen eta enkantearen gastuak kendu ondoren.

166. artikulua. 1. Oro har, enkante publikoaren sistema erabiliko da, 143. artikuluko 2. idatz-zatian eta tokiko kontratazioaren arloan ezarritakoarekin

bat, azpiatal honetan ezarritako berezitasunei jarraikiz.

2. Enkantea hutsik geldituz gero, eta bakarrik zur eta egurretako aprobetxamenduen ondorioetarako soilik, bigarren enkantea eta, beharrezkoa bada, hirugarrena ere egin ahal izanen dira; tasazioaren hasierako prezioa 100eko 10 merkatuko da bigarren enkantean, eta 100eko 30era bitarte, berriz, hirugarrenean.

3. Ez baldin bada aurreko lerrokadan xedatutakoa aplikatzen edo azkeneko enkantea izan ondoren hutsik gelditzen bada eta, hala eta guztiz ere, toki entitateak beste eskaintza bat jasotzen badu, toki entitateak haren balio ekonomikoari buruzko txostena eskatuko dio oihan administrazioari. Kasu horretan, toki entitateak berritik abiaraziko du aprobetxamendua besterentzeko prozedura. Horretarako, udaletxeko iragarki oholean jarriko ditu jendaurrean, bost egun balioduneko epean gutxienez, aprobetxamenduaren ezaugarriak eta hasierako prezioa. Jendaurreko epea bukatuta, jaso den eskaintza ekonomiko onenari esleituko zaio aprobetxamendua.

167. artikulua. 1. Toki entitateek eskatuta, zur eta egurretako oihan aprobetxamenduak lote desberdinetan zatitu ahal izanen dira, ondoren errazago saldu ahal izateko.

2. Toki entitateen zur eta egurretako aprobetxamenduak lote bakarrean bildu ahal izanen dira, besterentzeko. Horretarako, eta zur eta egurretako produktuak saltzearen ondorioetarako, salmentazentralak erabili ahal izanen dira, kontratu publikoari buruzko foru legeriak eta foru lege honek salmentazentralerako xedatutakoari jarraikiz.

168. artikulua. Ez du edukirik.

169. artikulua. 1. Toki entitateek esparru-akordioak egin ahal izanen dituzte enpresa batekin edo gehiagorekin zur eta egurretako produktuen aprobetxamenduaren ondorioetarako. Esparru-akordioetan gutxienez honako hauek zehaztu beharko dira: indarraldia, baldintza tekniko eta administratibo orokorrak, ezaugarri bolumetrikokoak eta aprobetxamenduen produktu-motak eta prezioak.

2. Esparru-akordio horiek onesteko prozedura erregelamenduz garatuko da.

Osagarri moduan, eta zur eta egurretako produktuak saltzearen ondorioetarako, kontratu publikoari buruzko foru legeriak xedatutakoari erreparatuko zaio.

170. artikulua. 1. Toki entitateek zur eta egurretako aprobetxamenduak besterentzen ahalko

dituzte, enkantearen tramitea egin gabe, hurrengo kasuetan:

a) Lote bakarraz osatuak daudenean eta kubi-kazioak erregelamenduz zehaztutakoak direnean.

b) Presakotzat jotzen diren herri-lanak edo lan pribatuak direla-eta egiten badira eta interes publikoari eragiten badiote.

c) Oihaneko suteak, izurriteak eta gaitzak edo zuhaiztiaren egonkortasunerako arriskuak direla-eta mendiko produktuak premiaz erauzi behar badira.

2. Artikulu honetako b) eta c) letretan aurreikusten diren kasuetan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan oihanen arloko eskumena duen departamentuak txostena egin beharko du eta loteslea izanen da.”

2. artikulua. Zerbitzu publikoak kudeatzeko moduak.

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 192. artikuluko 2. idatz-zatiko d) letrak testu berria du. Hona:

“d) Merkataritza-sozietateak kudeatzea. Sozietatearen kapitala oso-osorik toki entitate batena edo batzuen izan daiteke, edo horren edo horien menpekoak diren entitate publiko batena edo batzuen.”

3. artikulua. Toki kontratazioaren berezitasunak.

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko seigarren tituluko testu berria du. Hona:

“Seigarren titulua
Kontratazioa

224. artikulua. 1. Nafarroako toki entitateek egindako kontratuak Nafarroako administrazio publikoari aplikatzeko zaien legezko araubidea bete beharko dute eta foru lege honetan agertzen diren berezitasunak izanen dituzte.

2. Obra, hornidura nahiz laguntza kontratuak eta herri-lanen nahiz zerbitzuen kontzesioak Nafarroako toki entitateen menpeko edo horiei lotutako gainerako pertsona eta entitateek eginez gero, edo haien dirulaguntzarekin eginez gero, eta kontratu publikoari buruzko foru legedia bete behar badute, subjektu eta entitate horien kontratu publikoetarako legeria horretan xedatutakoarekin bat prestatu eta esleituko dira, foru lege honek dituen berezitasunekin bat.

3. Nafarroako toki entitateen edo horiei lotutako entitateen zerbitzu publiko bat kudeatzeko kontra-

tuei zerbitzuen emakida kontratueterako ezarritako araubide juridikoa aplikatuko zaie, baldin eta kontratatari eman beharreko ordainsaria ez bada zerbitzuen ustiapen ekonomikoa edo ustiapenarekin batera prezio bat ordaintzea, ondoko salbuespenak salbuespen:

a) Luzapenak barne, epea ez da hamar urtetik gorakoa izanen, hitzarmenetan izan ezik.

b) Europar Batasuneko publizitatearen betebeharrak aplikatuko da, baldin eta, zerbitzu motaren arabera betebeharrak hori beharrezkoa izaki, kontratuaren balio zenbatetsiak Europar Batasuneko atalasea gainditzen badu.

4. Toki entitateak edo hari lotutako entitateek kontratu publikoari buruzko foru legediko xedapen aplikagarriekin bat hautatuko dituzte bazkide pribatu edo pribatuak, zerbitzu publiko bat merkataritza-sozietate baten edo kooperatiba baten bidez kudeatzeko, baldin eta kapitala hein batean soilik bada toki entitatearena.

5. Merkataritza sozietateak entitatearen edo entitateen entitate instrumental berekizat hartuko dira, baldin eta sozietatearen kapitala oso-osorik toki entitate batena edo batzuen edo horren edo horien menpeko entitate publiko batena edo batzuen bada. Halatan, entitate instrumental horiei mandatuak egiten zaizkienean obra, hornidura edo laguntza kontratuei dagozkien prestazioak egin ditzaten, ez zaie kontratu publikoari buruzko foru legedia aplikatuko, baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:

a) Bere kabuz erabakitzeko ahalmenik ez izatea, entitate mandatu-egileak kontrolatzen duela, bere zerbitzu edo unitateak kontrolatzen dituen antzera.

b) Jarduera gehiena entitate mandatu-egilearentzat egitea.

6. Toki entitateek eta horiei lotutako entitateek, tokiko interes sozialeko inguruabar eta xedeak direla medio, kontratu publikoari buruzko foru legeriari lotu beharreko kontratu publikoak esleitzeko prozeduretan parte hartzeko erreserba egin ahalko diete pertsona edo enpresa jakin batzuei, baldin eta Europar Batasuneko kasuan kasuko atalasetik beheko balioko kontratu publikoak badira. Nolanahi ere, kontratu publikoari buruzko foru legeriaren arabera erreserbatutakoekin batera, xedapen honen babesean erreserbatutako kontratuen zenbatekoak ezin izanen du gainditu aurreko aurrekontu-ekitaldian esleitutako kontratuen zenbatekoaren %20.

225. artikulua. Nafarroako toki entitateetan, 2.000 biztanle baino gutxiago badituzte, abstentzi-

orako arrazoia izanen da hautapen bidezko karguen bateraezintasuna, kasuan kasuko ordenantzak hala xedatzen duen kasuetan edo, halakorik ezean, osoko bilkurak, korporazioko legezko kidekopuruaren gehiengo osoz, erabakitzen duenetan.

226. artikulua. Toki entitateetako ondoko organoei dagokie kontratatze eskumena:

1. Udaletan, foru lege honetako 8. artikuluan xedatutakoarekin bat dagokienei.

2. Kontzejuetan, usadio eta ohituren arabera dagokionari, eta halakorik ezean:

a) Kontzejuburuari:

1) Urteko kontratazioak, baldin eta zenbatekoak aurrekontuetako dirusarrera arrunten %10 gainditzen ez badu.

2) Urte anitzetarako kontratazioak, baldin eta gastua aplikatzen den ekitaldien kopurua lautik gorakoa ez bada, eta urte guztietako zenbatekoa baturik arestian aipatutako ehunekoa gainditzen ez badu.

b) Batzarrari edo kontzeju irekiari, gainerako kasuetan.

3. Mankomunitate, tradiziozko batasun eta elkarte izaerako bestelako toki entitateetan, bakoitzaren estatutuetan xedatutakoari jarraituko zaio, eta arestiko idatz-zatian kontzejuentzat ezarritakoa ordezkoko gisa aplikatuko da.

227. artikulua. 1. Toki entitateek administrazio klausula orokorren orriak eta agindu tekniko orokorren orriak ezarri ahalko dituzte. Orri horiek onestea Osoko Bilkurari edo entitatearen organo gorenari dagokio.

Administrazio klausula partikularren orriek eta agindu tekniko partikularren orriek ezin izanen dute izan orri orokorretan ezartzen denaren aurkako hizpaktarik, salbu eta orri horiek onesteko organo eskudunak baimentzen dituen kasuetan.

2. Toki entitate batek edo batzuek edo haiei lotuta dauden edo menpekoak diren entitate edo erakundeek salmenta-zentralak sortu edo eratzten badituzte edo Nafarroako beste administrazio publiko batzuek sustatutakoetara atxikitzen badira, aipatu zentralek lizitazio bakarrean entitate baten edo batzuen kontratu bat edo batzuk esleitu ahalko dituzte. Horretarako, loteak eginen dituzte irizpide geografikoei, ekonomikoei, prestazioen homogeneotasunari edo bestelako arrazoiei erreparatuz, betiere esleipen hartzaileak hautatzeko edo entitateei behar dituzten prestazioak emateko aukera eman beharko dutenak, eraginkortasunaren printzipioarekin bat.

Obra, hornidura edo laguntza kontratu batzuk batera baina lote berezietan adjudikatzen badira, horiek denak edo horien parte bat ez direla aldi berean eginen ezartzen ahalko da, eta lizitatzailerei exijitu ahalko zaie lote batzuetarako edo guztietarako eskaintzak aurkez ditzaten. Nolanahi ere, hori guztia zehaztu beharko da administrazio klausula partikularren orrian edo kontratuaren baldintzetan eta lizitazioaren iragarkian adierazi beharko da.

3. Larrialdiko espedienteen tramitazio berezian, kontratazio organoa entitateko burua izaten ahalko da kasu guztietan, zeinak ondoren egiten den lehenbiziko osoko bilkuran eman beharko baitu egindakoaren berri.

228. artikulua. 1. Emakida kontratuak adjudikatzeko Kontratazio Mahaia eratu beharko da nahitaez beti, bai eta obra kontratuen balio zenbatetsia 300.000 eurotik goitikoa bada (BEZa kanpo) eta hornidura eta laguntza kontratuen zenbatekoa 60.000 eurokoa edo gehiagokoa bada ere (BEZa kanpo). Gainerako kasuetan, administrazio klausulen orriak kontratazio mahai bat ezarri ahalko du.

2. Kontratazio mahaiaren buru korporaziokoa bera izanen da, edo korporazioko kideetatik hark eskuordetutakoa, eta mahaiako partaide izanen dira, gutxienez, kontratazio organoak izendatzen dituen bi kide; horietako bat entitateko idazkaria izanen da, edo zuzenbidean lizentziatua den funtzionario bat, betetzen ari den lanposturako titulazio hori exijitzen bada, eta hura arituko da idazkari.

Kontratazio organoak izendatzen dituen kideak ez badira teknikari adituak kontratuak xede duen gaian, mahaiak behar diren txosten teknikoak eskatu beharko ditu, esleipen proposamena haietan oinarritzeko.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatiarekin bat, kontratazio mahaiaren eraketa aukerakoa izan eta mahaia ez bada eratzten, kontratua kudeatzeko ardura duen unitatearen ardura izanen da lizitatzailak onartzea eta esleipen proposamena egitea, idazkariak proposatuta, eta bata zein bestea kasuan kasuko txosten teknikoetan oinarritu beharko dira.

Kontratazio mahaia eratzten bada, eraketa horrek balio ahalko du prozesu osorako edo bakar-bakarrik esleipen proposamena egiteko. Azken kasu horretan, aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera eginen dira kalifikazioa eta onarpena.

229. artikulua. 1. Administrazio klausula partikularren orrian esleipen irizpideen ponderaziorik ezarri ez bada, ezin izanen da haietako bakoitza balioetsi garrantziaren ordenaren arabera haren

ondotik ezarritako irizpiderako aplikatutakoaren 100eko 10eko ponderaziotik goiti.

2. Toki entitateek esleipen irizpideak aplikatu ondotik sortzen diren berdinketak ebazteko irizpideak ezarri ahalko dituzte, oro har nahiz kontratu bakoitzerako. Irizpide horiek aplikatuta berdinketak jarraituz gero, zozketaz ebatziko da. Irizpiderik ezarri ezean, berriz, kontratu publikoei buruzko foru legediak finkatutako irizpideekin bat ebatziko da berdinketa.

3. Prozedura negoziatu batean, kontratuen funtsezko baldintzen agiriak ondokoak arautuko ditu gutxienez ere: kontratuaren xedea, zenbatekoa eta epea eta gauzatzeko beharrezkoak diren zehaztasun teknikoak; kontratazio organoaren, kontratua kudeatzeko ardura duen unitatearen eta, halakorik baldin bada, Kontratazio Mahaiaren identifikazioa; gutxienezko kaudimen-baldintzak; esleipen irizpideak; ordaintzeko modua eta, kasua bada, prezioak berraztertze modua.

4. Prezioan soilik oinarrituta esleitu behar diren prozedura irekiak ahoz egiten ahalko dira, lizitazioaren hitzezko proposamen eta posturen bidez, herriko ohitura eta usadioei jarraituz.

Aipatu kontratazioetan, kontratu publikoei buruzko foru legedian jasotzen diren betekizunak aplikatuko dira. Proposamen ekonomikoak idatziz aurkeztu ordez, hitzezko proposamen eta posturak egiten dira jendaurreko ekitaldian.

5. Ondareko edo herrilurretako ondasunak aprobetxatu edo besterentzeko ahozko enkanteetan parte hartu ahal izateko, lizitazioaileek bete beharko duten baldintza bakarra da administrazio klausula partikularren orrian eskatzen den behin-behineko bermea gordailuan uztea.

Adjudikatu aitzin, administrazio klausula partikularren orrian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatze dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Esleipen proposamena irabazten duen lizitazioaileari, baldintza horiek bete ezik, behin-behineko bermea bahituko zaio eta gainera esleipenaren aldeetatik administrazio lizitazioaileari egindako kalte eta galeren ardura hartuko du bere gain.

Enkanteetako esleipen egintzaren emaitza berehala jarriko da entitateko iragarki-oholean.

6. Ondarea edo herrilurrak aprobetxatu edo besterentzeko enkanteak prozedura irekiaren bidez eginez gero, esleipenaren proposamena jasotzen duen eskaintza, gutxienez zenbateko osoaren seitek bat gehituz hobetu ahalko da. Sesta emateko, arau hauei jarraituko zaie:

a) Enkanterako iragarritako ordutik hasi eta ondoko sei egunetan egin beharko da eta seigarren eguneko ordu berean amaituko, jaiegunak ere barne direla.

b) Enkantean lizitazioaile izan ez bada ere, legezko ahalmena duen edonork egiten ahalko du; betiere, aurrez behin-behineko bermea jarri badu.

c) Idatziz nahiz idazkariaren aurrean hitzez egin ahalko da. Edozein modutan ere, idazkariak eginbide bat idatziko du, aurkeztu den eguna eta ordua adieraziko duena, eta interesdunak sinatuko du.

d) Sesta ematea amaitu ondoren, horretarako jarritako epea bukatu eta ondoren lau egun baliogun izanen dira beste enkante bat egiteko. Toki entitateak esleipenaren proposamenaren hartzaileri bere postura seiren bat hobetua izan dela jakinarazi beharko dio eta behin betiko enkantea noiz egingen den espresuki adierazi.

e) Behin betiko enkantea egiteko tasazio prezioztat, egindako hobekuntzatik ateratakoa hartuko da eta kasuan kasuko iragarkia jarriko iragarki oholean, hurrengo enkantea zein egun eta ordutan izanen den gutxienez bi egun natural aurretik zehaztuta. Hasierakoaren modu berean egingen da enkantea. Lizitazioaileari ez badago, kontratua sesta-emateari esleiki dakiola proposatuko da.

f) Enkante berriari buruzko akta idatziko da eta artikulua honetako 5. idatz-zatiko azken lerrokan aurreikusi bezalaxe iragarriko da emaitza.

g) Esleipenaren proposamenaren ondorengo hiru egun baliogunetan edonork erreklamazioa egin ahalko du idatziz, lizitazioaile izan gabe ere, lizitazioaren tramitazio akatsen eta, bereziki, lizitazioaren gaitasun juridikoaren kontra, eta bere iritziz esleipena egiteko bidezko den ebazpena eman dadila eskatu ahalko du.

7. Lizitazioaren eta adjudikazioaren iragarkiak kasuan kasuko toki entitatearen iragarki oholean jarriko dira, kontratu publikoei buruzko foru legediarekin bat jarri beharreko hedabideetan jartzeaz gain.

8. Nafarroako toki entitateek eta horiei lotutako entitateek nahitaez iragarri beharko dute Kontratazioaren Atarian prozedura negoziatu bat abian dela, baldin eta kontratuaren zenbatekoak, obra kontratuen kasuan, 300.000 euro (BEZa kanpo) gainditzen baditu, eta, hornidura eta laguntza kontratuen kasuan, 60.000 euro (BEZa kanpo) gainditzen baditu.

Kasu horietan, kontratua arautzeko baldintzetan ezarritako irizpideekin bat eskaintzak aurkezte-

ko gonbita jasoko duten lizitatzailleen kopurua muga dezake administrazioak, hori horrela dela adieraziz kontratua arautzeko baldintzetan eta lizitazioaren iragarkian.

230. artikulua. 1. Nafarroako toki entitateek eta haiei lotutako entitateek ondoko arauari jarraikiz formalizatuko dituzte kontratuak:

1) Administrazio klausula partikularren orrietan edo kontratuaren baldintzetan kontratuak formalizatzea exijitu ahalko da.

2) Kontratua formalizatu beharra ezartzen den kasuetan, entitateko idazkariak eskuetsi beharko ditu kontratua formalizatzeko administrazio-agiriak.

3) Kontratua formalizatu beharra ezartzen ez den kasuetan, administrazio klausula partikularren orrian edo baldintzetan adierazi beharko da zer epetan jarri beharko den bermea, bermea jarri behar baldin bada, eta orobat adieraziko da zein epetan hasi behar den kontratua betetzen edo, obra kontratuen kasuan, zein epetan egiaztatu behar den zuinketa.

4) Kontratua formalizatu ez den kasuetan, epeak zenbatzen hasiko dira administrazio klausula partikularren orrietan edo kontratuaren baldintzetan ezarritako egunetik edo aldeek kontratua betetzen hasteko adostutako egunetik aitzina, kontratuei buruzko legediak kontratua formalizatzen den egunetik aitzina zenbatu beharra ezartzen baitu.

5) Kontratua formalizatu ez den kasuetan, esleipenaren ebazpena edo erabakia edozein erregistro publikotan sarrera izateko behar adinako titulua izanen da.

2. Administrazio klausula partikularren orriak ezarri beharko du betebeharreari aurre egiteko bermea jarri beharra kontratua formalizatu baino lehen, baldin eta, obra kontratuen kasuan, zenbatekoa 300.000 eurotik gorakoa (BEZa kanpo) bada, eta hornidura eta laguntza kontratuen kasuan, berriz, zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa (BEZa kanpo) bada, eta betiere, kontratuaren izaera eta zenbatekoa zein ere diren, esleipen-hartzaileak kontratu publikoei buruzko foru legediaren arabera ohi baino eskaintza baxuagotzat jo daitekeena aurkeztu badu; halakoetan, esleipenaren prezioaren 100eko 50eko bermea jarriko da, eta hori ez da eragozpen izanen zenbateko hori kontratua jaso aurretik itzuli edo hein batean ezeztatu dadin, kontratua kudeatzeko ardura duen unitateak txostena egin ondoren eta esleipenaren prezioaren 100eko 25eko mugarekin.

Toki entitateen kontratuetan lizitatu edo betebeharrak betetze aldera exijitzen diren bermeak enti-

tate kontratugilearen diruzaintzan jarri beharko dira.

3. Entitateek, kontratatzeke orduan foru lege honek xedatutakoa bete behar badute, Kontratazio Publikorako Batzordeari jakinaraziko dizkiote kontratu guztiak, nahiz eta formalizatu ez, salbu eta exijitzen ahal den dokumentazio bakarra faktura den prozeduretan esleitutakoak, eta ezertan ere ukatu gabe larrialdietako kontratazioetarako ezarritakoa.

231. artikulua. Obren onarpenean egon beharko dute entitateko buruak edo hark eskuordetutako kideak, entitateko idazkariak, obren zuzendaritzako arduradunak, egoki iritzi gero bere fakultatiboa lagun duela, eta kontu-hartzailetzako lanak egiten dituenak.

232. artikulua. 1. Obra, hornidura eta laguntza kontratuen lizitazioan edo esleipenean interesatuta dauden enpresek eta profesionalek horiei buruzko kautelazko neurriak eskatu ahalko dituzte betiere, bitarteko telematikoen nahiz konbentzionalen bidez, baldin eta kontratuak foru lege honetan xedatutakoari lotu behar bazaio eta Europar Batasuneko atalasea gainditzen badu; entitate kontratugileak xedatuz gero, berriz, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa jarri ahal izanen dute hilabeteko epean, kontratu publikoei buruzko foru legedian ezarritakoari jarraikiz, toki entitateak berak edo elkarren artean nahiz Nafarroako beste administrazio publiko batzuekin elkartutako zenbait toki entitatek xede horrekin eraturako organoari –ebazteko eginkizunetan independentea eta jarraibide hierarkikoei lotuta ez dagoena– zuzendua.

Eskaera eta, kasua bada, kautelazko neurriak indarrak gabe geldituko dira, baldin eta ez bada jartzen foru lege honetako 335. artikuluan aipatzen dituen administrazio errekursoetarik bat edo, bestela, kasuan kasuko epeen barruan kontratazio publikoaren arloko erreklamaziorik jartzen ez bada.

2. Europar Batasuneko atalaseak gainditzen ez dituzten kontratuen kasuan, lizitatzailerek erreklamazioa jarri ahalko dute eta alde aurretik kautelazko neurriak eskatu, honen aurreko lerrokadan ezarritako moduan, baldin eta toki entitateak edo hari lotutako entitateek administrazio klausula partikularren orrian edo kontratuaren baldintzetan hala xedatzen bada.

3. Toki kontratazio publikoaren arloan ebazteko eskumena duen organoak, 1. idatz-zatian aipatutakoak, toki entitate kontratugileko zinegotzi bat izanen du buru, eta haren kide izanen dira, gutxienez ere, toki entitate kontratugileko osoko bilkurak

izendatutako bi kide. Horietatik bat kontratuaren gaian aditua den teknikari bat izanen da, eta bestea entitate kontratugilearen idazkaria edo entitateko funtzionario bat, zuzenbidean lizentziatua eta titulazio hori exijitzen den lanpostua betetzen duena, edo, kasua bada, toki entitate elkartuetariko edozeinetakoa, zeina idazkari lanetan arituko baita. Nolanahi ere, kide gehienek kontratazio publikoaren arloan edo kontratuaren xedearen arloan prestakuntza berezia dutela bermatu behar da.

4. Entitate kontratugileak honen aurreko idatzatian aipatzen den organoa izendatzen ez badu, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa jarri ahalko da, Kontratazio Publikorako Batzordeari zuzendua, Kontratu publikoei buruzko foru legeko hirugarren liburuan ezarritako moduan.

5. Kasu guztietan, toki entitateek edo haiei lotutako entitateek administrazio klausula partikularren orrian edo kontratuaren baldintzetan adierazi behar dute zein organori zuzentzen ahal zaion errekurtsioa edo erreklamazioa eta eskatzen ahal zaion kontratazio publikoaren arloko kautelazko

neurriak ezar ditzan eta, kasua bada, orobat adieraziko dute lizitatzailleak behartuta daudela helbide elektroniko bat ematera jakinarazpenak bitarteko telematikoen bidez egin daitezela, baldin eta kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkeztu bada edo kautelazko neurriak ezar daitezela eskatu bada.

Betebehar hori ezartzea bidezkoa den kasuetan, lizitatzailleek ezin izanen dute erreklamazioa jarri betebehar hori bete ezean.”

Xedapen iragankor bakarra. Foru lege honen aplikazioa

Kontratuen administrazio klausula partikularren orriak edo baldintzak foru lege honek indarra hartu baino lehen onartu baldin badira, kontratu horiei ez zaie aplikatuko foru lege honetan xedatutakoa, eta onetsi ziren unean indarrean zegoen araudia aplikatuko zaie.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiei egunen buruan hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2006ko abenduaren 18ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu

foru lege proiektua 2006ko azaroaren 10eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diabetesa duten pertsonen identifikazioa, txapa edo eskumuturreko baten bitartez, erraztu dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da diabetesa duten pertsonen identifikazioa, txapa edo eskumuturreko baten bitartez, erraztu dezan"

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Nafarroako herritarren %6k diabetesa dute, eta, adituek diotenez, gaixoen kopurua areagotzen

ari da. Gaixotasunak eragiten dituen arazoak hauek dira: azukrearen bat-bateko jaitsiera, hipogluzemia –indarra galtzea bezalako sintomak ditu eta koma egoera ere eragin dezake–, edota hipergluzemia, nekea bezalako sintomak dituena.

Gaixo bat, hipogluzemiaren eraginez, zerraldo erori eta bere gaixotasunaren berri emateko gaitasuna galtzen badu, horrek egoera atzeraezina eragin dezake, azukrea jaistearen sintomak askotan nahasgarriak izan daitezkeelako.

Hori dela eta, funtsezkoa da, muturreko kasuetan, tratamendu egokia eta arina ematea gaixoari; eta espezialisten ustez, gaixoen pertsona horrek diabetesa duela adierazten duen txapa edo txartel bat eramateak asko erraztuko luke lan hori.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du diabetesa duten Nafarroako Foru Komunitateko pertsonen identifikazioa erraz dezan, txapa edo eskumuturreko batez bidez.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bulimia edo nerbio-anorexia duten gaixoentzat berariazko plan bat abian jar dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da bulimia edo nerbio-anorexia duten gaixoentzat berariazko plan bat abian jar dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Nafarroan, urtean 300 bat pertsona artatzen dituzte adimen-osasun zerbitzuetan anorexia eta bulimia arazoak direla eta. Gaur egun, gizartean oro har, eta baita Nafarroan ere, egonezina dago anorexia eta bulimia nerbiosoen arazoa dela eta. Gaixotasun horien dituzten senideen elkarrean ustez, Osasun Departamentuak baztertu egiten

ditu halako nahasteak pairatzen dituzten pertsonak.

Kezkagarria da gaixotasun horiek ukitutako pertsona kopurua. Batzuetan, gaixotasunen amai- era gaixoaren heriotza izaten da; eta gaixoak oro har gazteak izaten direnez, arazoarekiko eta tratamenduaren zailtasunarekiko sentiberatasuna handiagoa da. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak Nafarroako Gobernua premiatzen du berariazko plan bat abian jar dezan, foru erkidegoan bulimia eta anorexia nerbiosoa duten gaixoen arazoari erantzuteko.

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Departamentuaren bidez tratamendu berariazko eta integrala eskain diezaien gaixotasun horiek dituzten pertsonei.

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak Nafarroako Gobernua premiatzen du irizpide klinikoak eta gaixotasun horietan adituak diren Espainiako beste espezialista batzuen esperientziak balia ditzan, eta sare publikoan ezagutza eta diagnostikoa hobetzeko beharrezkoak diren mekanismoak sor ditzan. Eta, beharrezkoa balitz, beste esperientzia batzuetan jada abian jarri diren berariazko unitateak sor ditzan.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte politiken babesa duten kolektiboentzako hobari-sistemak edo beherapenak itundu ditzan bidaiarien garraiorako linea erregularren emakida duten enpresekin.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte politiken babesa duten kolektiboentzako hobari-sistemak edo beherapenak itundu ditzan bidaiarien garraiorako linea erregularren emakida duten enpresekin".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte politiken babesa duten kolektiboentzako (familia ugariak, ezgaitasunak dituzten pertsonak, alargunak, ikasleak, langabetuak eta zaharrak) eta ohiko erabiltzaileentzako hobari-sistemak edo beherapenak itundu ditzan bidaiarien garraiorako linea erregularren emakida duten enpresekin.

Zioen azalpena:

Zalantzarik gabe, beharrezkoa da garraio kolektiboen erabilera sustatzea. Ibilgailuen trafikoa arintzeko eta ibilgailuen pilaketetan denborarik ez galtzeko beharra, eta kutsadura maila jaisteko betebeharra arrazoi nahikoak dira helburu hori lortzeko ahalegina egiteko.

Garraio kolektiboa sustatzeko modu bat da haren erabilera bultzatzea eta erraztea, ohiko erabiltzaileak eta haien fideltasuna saritzea, egiten duten gastua murrizten saiatuta –izan ere, gastu hori batzuetan handia eta nahitaezkoa izaten da, beste aukerarik ezean–, eta dituzten berezitasunengatik edo jasaten duten aukera desberdintasuna dela-eta botere publikoen aldetik arlo sozialeko laguntzen xede diren kolektiboek erabil dezaten sustatzea. Hori da, hain zuzen, familia ugarien, ezgaitasunak dituzten pertsonen, alargunen, ikasleen, langabetuen eta zaharren kasua.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bidaiarien garraiorako linea erregularren emakida duten enpresekin gizarte politiken babesa duten kolektiboentzat (familia ugariak, ezgaitasunak dituzten pertsonak, alargunak, ikasleak, langabetuak eta zaharrak) eta ohiko erabiltzaileentzat hobari-sistemak edo beherapenak itun ditzan.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Eleduna: Fernando Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan osasun sareko ospitaleetan banakako gelak jartzeko programazioa abian jar dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan osasun sareko ospitaleetan banakako gelak jartzeko programazioa abian jar dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Nafarroako osasun zerbitzuak herritarren beharrianetara eta eskakizunetara egokitu behar du; izan ere, osasun publikoa pertsonen zerbitzura dago.

Nafarroako osasun zerbitzuak aurreratu egin behar du kalitatea, eraginkortasuna eta baliabideen efizientzia hobetzeko.

Kalitatea gure osasun sistema publikoaren erronketako bat da, baita pertsonen duintasunaren esparruari dagokionez ere.

Gaixoez behin eta berriro egiten duten eskakizunetako bat da ospitaleetan banakako gelak izatea, egonaldiak erosoagoak izan daitezen.

Edozein arrazoi dela eta ospitale batean sartzek mugak eragiten ditu; pertsonak euren osasunaren inbasioa pairatzen dute, eta euren burua babestuago, seguruago eta ahalik eta baldintza duinenetan ikusi nahi izaten dute.

Horretaz gain, badira hainbat patologia eta egoera, banakako gelatan egotea eskatzen dutenak.

Nafarroako osasun publikoaren sareko ospitaleetan banakako gelak urriak dira, eta osasun arloko plan zuzendarietan jasotzen da kopuru hori ahalik eta gehien handituko dela.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako osasun sareko ospitaleetan banakako gelak jartzeko programazioa aurkeztu eta abian jar dezan.

Iruñean, 2006ko azaroaren 21ean

Eleduna: Fernando Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako lan autonomoa sustatzeko plana egin dezan, langile autonomoen kolektiboarekin lanean ari diren elkarteekin lankidetzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako lan autonomoa sustatzeko plana egin dezan, langile autonomoen kolektiboarekin lanean ari diren elkarteekin lankidetzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Laster langile autonomoen estatutua onetsiko da, eta horrek aurrerapen handia ekarriko du beren kontura lan egiten duten langileen eskubide eta betebeharrei dagokionez.

Nafarroan 43.000 langile autonomo baino gehiago daude, eta beharrezkoa da beren kontura proiektu bat abian jartzea erabakitzen duten pertsonen lanaren aldi baterako eta behin-behineko ikuspegia gainditzea, eta horrela sortzen diren norberaren konturako lanpostuak proiektu bidera-

garrietatik datozelako ideia edo ikuspegia ezartzea; izan ere, denboran jarraitzeko asmoarekin sortzen diren lanpostuak dira eta, aldi berean, besteren konturako lanpostuen sortzaile ere badira.

Halaber, garrantzitsua da foru erkidegoko toki entitateei eman behar zaien eginkizuna lan mota hori sendotzen lagunduko duten proiektuak susta ditzaten, beren eskumenen eta enplegu iturri berrien esparruan.

Plan horretan jasotzen diren neurriak baliagarriak izan behar dira sortzen diren ekimenak abian jartzeko eta sendotzeko, eta horien artean aipagarriak dira, besteak beste, langile autonomoen txartela, jardueraren hastapenerako; finantziario malgua eta aholku eta baimen proiektuak gabeko lehen kontratazioei edo behin-behineko kontratuak mugagabe bihurtzeko laguntzak ematea; berariazko prestakuntzarako laguntzak ematea; langile autonomoen promoziorako programa; langile autonomoentzako familia eta lana uztartzeko neurrien programa, prebentzioaren kultura eta langile autonomoen elkarketa eta langile horiek ordezkatzeko dituzten elkarten funtzionamendua sustatzea.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako lan autonomoa sustatzeko plana, langile autonomoen kolektiboarekin lanean ari diren elkarteekin lankidetzan, egin dezan.

Iruñean, 2006ko urriaren 31n

Eleduna: Fernando Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana duten emakumeak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan prestatzeko programak egin ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da lana duten emakumeak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan prestatzeko programak egin ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Gaur egun, gizonezkoek eta emakumezkoek ezin dituzte berdintasunean eskuratu informazioaren teknologia berriak.

Generoko eten digitalak eragin kaltegarria du, bai emakumeak lan munduan sartzeko eta lanaren kalitaterako, bai emakumeen bizitza pertsonalaren garapenerako.

Generoko eten digitalak ez du murrizteko joerarik; aldiz, denborarekin handitzen ari da.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek erronka berriak dakartzate herritartasuna baliatzeko: sarea baliagarria da entzuteko, beste pertsona batzuekin komunikatzeko, erabakiak hartzeko prozesuen protagonista izateko, eta, horretaz gain, ekonomiaren hazkundera ahalbidetzen du.

Informazioaren gizartean, ezin ditugu emakumeen, hau da, gizartearen erdiaren gaitasuna, indarra, irudimena eta jakingura alferrik galdu.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazioaren eta komunikazioaren teknologietan ari diren emakumeak prestatzeko programak egin ditzan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeak sektore estrategikoetan egoteko ahaleginean sakon dezan, eta emakumeek lidergoa eskuratu ahal izateko eta horretarako gaitzeko generoko zeharkakotasuna eta ardurakidetzaren sar ditzan gaur egungo ohituren artean.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazioaren gizartean berdintasuna lortzeko ekintza programa bat sar dezan aukera berdintasunerako planaren barruan.

Iruñean, 2006ko azaroaren 31n

Eleduna: Fernando Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan Valtierran N-113 errepidetik AP-15 autobiderako sarbidea zabaldu eta hobetzeko eta bi norabideko lotune bihurtzeko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan Valtierran N-113 errepidetik AP-15 autobiderako sarbidea zabaldu eta hobetzeko eta bi norabideko lotune bihurtzeko."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Valtierrako N-113 errepidetik AP-15 autobiderako sarbidea zabaldu eta hobetzeko, bi norabideko

lotune bihurtuz, beharrezkoak diren jarduketak egin distan:

Zioen azalpena:

Gaur egun, Valtierrako N-113 errepidetik AP-15 autobiderako sarbideak soilik ahalbidetzen du autobidera Iruñerako norabidean sartzea; halaber, autobidetik atera daiteke soilik iparraldetik etorri gero, ez ordea hegoaldeko etorri gero.

Autobidea iragazkortzeko beharra, azpiegitura hori errentagarriagoa izan dadin, eta areagotzen ari den jarduera ekonomikoaren ondorioz sorturiko eskaerak, aipatu sarbidea eraberritu eta bi norabideko lotune bihurtzea gomendatzen dute. Horrela Valtierra, Arguedas, Cadreita eta beste udalerririk mugakideetako biztanleen eskaerari erantzunen zaio eta haien mugikortasuna nabarmen hobetuko da.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan Valtierran N-113 errepidetik AP-15 autobiderako sarbidea zabaldu eta hobetzeko eta bi norabideko lotune bihurtzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 23an

Eleduna: Fernando Puras Gil

Adierazpen instituzionala, abenduaren 1ean ospatzen den hiesaren kontra-ko nazioarteko eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak aitortzen du Espainian, azken urteotan, asko aurreratu dela izurritearen kontrolari dagokionez, eta honakoak izan dira horren eragile: administrazio publikoen konpromisoa, osasun arloko profesionalen kalitatea eta GKE-en eta gizarte zibilaren beste egitura batzuen lana. Hala ere, Nafarroako Parlamentuaren ustez erne jarraitu beharra dago gaixotasun honen aurrean. Horrekin lotuta, gure ustez, esparru

horretan diharduten elkarte eta kolektiboek lan handia egiten dutela.

Nafarroako Parlamentuak prebentzio-neurriak indartzeko ahalegin handiagoa eskatzen du, sexu-harremanen esparruan bereziki.

Nafarroako Parlamentuak berresten du sexu-jokabide osasungarriak sustatzen jarraitu behar dela, gazteak heziz eta preserbatiboaren erabilera erraztuko duten prebentzio-estrategiak aurrera eramanez."

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, psikiatriako krisialdietan eta larrialdietan laguntza emateko talde tekniko bat abian jartzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, psikiatriako krisialdietan eta larrialdietan laguntza emateko talde tekniko bat abian jartzeari buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak 2005eko irailaren 15ean eginiko Osoko Bilkuran erabaki hau hartu zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du sektore arteko lan talde tekniko bat era dezan, psikiatriako krisialdietan eta larrialdietan laguntza emateko eta eri psikiatrikoak gogoz kontra ospitaleratzeko sistema bat taxutuko duena urtebeteko epean.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du heldu den urterako aurrekontuan behar horri erantzuteko aurrekontu lerroa ezar dezan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du dauden baliabideak berrantola ditzan eta behar direnak gehi ditzan, protokolo hori eraginkorra izateko.”

Urtebeteko epea eskatu zen talde tekniko hori abian jartzeko, eta epe hori jada iragan denez, haren egoera zein den jakin nahi dugu, baita psikiatriako krisialdietan eta larrialdietan laguntza emateko erabiliko den aurrekontua eta funtzionamendua ere.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, langileek lana eta familia bateragarri egite aldera Nafarroako Gobernuak garatutako programei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera, langileek lana eta familia bateragarri egite aldera Nafarroako Gobernuak garatutako programei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma Saiz Delgadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun ditzan:

– Zer programa garatu ditu Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan Nafarroako langile autonomoen lana eta familia edo bizitza pertsonala bateragarri egite aldera?

Iruñean, 2006ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, jakiteko zenbat alditan eta noiz eskatu dion Nafarroako Gobernuak Espainiakoari Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa kudeatzeko eskumenak bereganatzea.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ LUIS IZCO BIARGE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak egindako galdera, jakiteko zenbat alditan eta noiz eskatu dion Nafarroako Gobernuak Espainiakoari Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa kudeatzeko eskumenak bereganatzea. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biargek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak erabakirik hartu al du azken zortzi urteotan Espainiako gobernuari Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa bereganatzea eskatzeko? Zenbat aldiz eta noiz?

Iruñean, 2006ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: José Luis Izco Biarge

Galdera, Hezkuntza Departamentuak iritzia aldatu eta Zizur Nagusian beste ikastetxe publiko bat eraiki beharrean dagoena handitzeko arrazoiei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Hezkuntza Departamentuak iritzia aldatu eta Zizur Nagusian beste ikastetxe publiko bat eraiki beharrean dagoena handitzeko arrazoiei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Hezkuntza Batzordan ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, ahoz erantzuteko Parlamentuaren Hezkuntza Batzordean.

Egia al da Hezkuntza Departamentuak iritzia aldatu eta Zizur Nagusian beste ikastetxe publiko bat eraiki beharrean, dagoena handitzea erabaki duela? Zein da irizpide aldaketa horren arrazoia?

Iruñean, 2006ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Bigarren Zabalguneko osasun etxearen aurrekontu eta azken kostuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Bigarren Zabalguneko osasun etxearen aurrekontu eta azken kostuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres

Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Azkenean, iragan urrian inauguratu zen Zabalguneko osasun zentroa, urte eta erdiko -16 hila-bete- atzerapenarekin, aurreikuspen eta aurrekontu faltagatik.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Zabalguneko osasun zentroaren aurrekontu osoa.

– Osasun zentro horren amaiera kostua, obra- eta ekipamendu eta altzarien kostuak bereizita.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Larrialdietarako Zerbitzu Berezia Bigarren Zabalguneko osasun etxean jarri ez izanari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, Larrialdietarako Zerbitzu Berezia Bigarren Zabalguneko osasun etxean jarri ez izanari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Azkenean, iragan urrian inauguratu zen Zabalguneko osasun zentroa, urte eta erdiko –16 hila-bete– atzerapenarekin, aurreikuspen eta aurrekontu faltagatik.

Inaugurazio hartan aipatu zenez, osasun zentroan zerbitzu guztiak zeuden instalatuta, eta hala irakurri dugu hedabideetan ere. Baina, osasun zentro horretan larrialdietarako zerbitzu berezia ezartzea aurreikusita egon arren, zerbitzu hori oraindik ez da jarri aurreikusitako tokian, eta Solchaga anbulatorioan ematen da.

Egoera hau are larriagoa da, Solchaga anbulatorioan egiten ari diren lanak direla eta. Lan horien eraginez, kontsultak lekualdatu ziren, ez ordea

larrialdietarako zerbitzu berezia. Gainera, eta argitaratutako berrien arabera, lanek 2007ko ekainera arte iraunen dute.

Zarata, hautsa, lanak oro har, eragozpenak eta osasun laguntza emateko arazoak eragiten ari dira; hala, oztopo dira osasun arloko langileek gaitxoak behar bezala arta ditzaten, eta, adibidez, auskultazioa bezalako oinarrizko praktikak eragozten dituzte.

Pentsaezina da halako egoerak gertatzea eta zerbitzu hori lekualdatzea aurreikusi ez izana, eta ematen duen inpresioa da larrialdietako osasun laguntza ez dela aintzat hartzen.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak hauxe jakin nahi du:

1.- Zergatik ez da jarri larrialdietarako zerbitzu berezia Zabalguneko osasun zentroan, aurreikusita zegoen bezala? Zein izan dira irizpide aldaketa horren arrazoiak? Galdera honen xedea da bertan dauden profesionalek ematen duten zerbitzua, eta ez ZBU mugikorra, gauza desberdinak baitira.

2.- Zergatik ez da lekualdatu larrialdietarako zerbitzu berezia Solchaga anbulatorioko lanak irauten duten bitartean?

3.- Aurreikusi da larrialdietarako zerbitzu berezia berehala tokiz aldatzea lanek irauten duten bitartean, edo egoera tamalgarri horretan jarraituko du, nahiz eta ezinezkoa izan osasun laguntza egokia ematea?

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Nafarroako Gobernuak Cascanten ikastetxeak eraikitzeke edo handitzeko duen aurreikuspenei eta egungo egoerari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI CARLOS CRISTÓBAL GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Cascanten ikastetxeak eraikitzeke edo handitzeko duen aurreikuspenei eta egungo egoerari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Cascanten ikastetxeak eraiki edo handitzeari buruzko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

– Cascanteko ikastetxeen gaur egungo egoeraren berri izan nahi dut, baita Gobernuaren asmoen berri ere, Cascanten ikastetxeak eraiki edo handitzeari buruz.

Iruñean, 2006ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

Galdera, zenbait ikastetxe eraiki edo handitzean izandako atzerapenei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, zenbait ikastetxe eraiki edo handitzean izandako atzerapenei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 184. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien.

Otsailaren 16an eginiko Osoko Bilkuran, hezkuntza kontseilariak ondoko asmoak azaldu zituen, Iruñerriko hirigintza garapen berrietan ikastetxeak eraikitzeke edo handitzeari buruz:

Berriozarren, Mendialdea ikastetxea handitu eta 2008-2009 ikasturterako beste ikastetxe bat eraikitzea; Bustintxurin, haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe bat (2008-2009) eta bigarren hezkuntzako institutu bat; Ezkaban, ikastetxe publiko berria (2007-2008) eta BHI bat (2012); Sarrigurenen, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako bi ikastetxe (2007-2008) eta haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe bat (2008-2009) eraikiko dira eta lurzorua gordeko da, bertan balizko bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzeke. Mendillorri, BHI berria eraikiko da (2007-2008); Zizur Nagusian, 2007ko maiatzerako ikastetxe berria eraikiko da eskola barrutian, 2007an BHIa handituko da eta ikastetxe publiko berria eraikiko da Ardoi urbanizazioan. Mutiloabeitin, San Pedro ikastetxe publikoa handituko da, eta Uharten, berriz, Virgen Blanca ikastetxea handituko da.

Ikusirik aurreikuspen horiek ez direla betetzen ari, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zein dira arrazoiak ikastetxeen eraikuntzan atzerapenak izateko? Ikastetxez ikastetxe zehaztea nahi dut.

– Zergatik gertatzen dira atzerapen horiek?

– Gaur egun, zer aurreikuspen dauka Hezkuntza Departamentuak ikastetxe horien guztien erakuntzari dagokionez?

Iruñean, 2006ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, Tafallan Nasuinsak sustatutako La Nava industrialdeko egoerari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera, Tafallan Nasuinsak sustatutako La Nava industrialdeko egoerari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma

Saizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Tafallako La Nava industrialdeak jada ez du lurzorurik bertan ezarri nahi duten enpresei eskaintzeko. Hori dela eta:

– Nasuinsak beste industrialde bat sustatzeko asmoa du eskualde horretan. Zein da ekimen horren egoera?

– Non jarriko da industrialde hori? Zer azalera izanen du? Zer dotazio eta azpiegitura izanen ditu? Zein da industrialdea egiteko epea?

Iruñean, 2006ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Elma Sáiz Delgado

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Urtebete 43,95 euro	Navas de Tolosa, 1
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	31002 IRUÑA
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	